

**KULTURA**

sortzen dugu

BILBAO 700 • III MILELIUM

Sormena bultzatzen dugu eta zure eskuetan jartzen ditugu obra paregabeak, berriak eta klasikoak, behar-beharrezkoak. Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara. Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia. Hau da gure kultura.

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

**bbk** =

MAHATSERRIKO ALD ZKARIA

Legre gordailua: BI-85-98  
ISSN: 1577-9025


**berria**

2001ko UDA 35. zkia.  
125 pzta.

**Jabier Erize**  
"Euskal nekazaritzaren arazoa, Chiapas edo Brasilen bezala, lurra da"



**Santutxuko Jaiak  
eta  
Zurbarango Jaiak**




# Bertikoak



## Erromeria Begoñan

*Lapikoak, otzarak, amantalak, mantarrak, platerrak, goilarak eta sua. Eta atzean, ez ete da hori txosnea? Zertan dabilz ba andrazkook? Erromeria egun bateko bazkaria prestetan dagoz Begoñako elizateko herriko etxea zanaren ondo-ondoan. Erretratua Eulalia Abaituak egin eban mende hasieran. Artean famatuak ziran Begoñako erromeriak. Jentea andanaka etorten zan albo-herrietatik mahatsorrien jaietara. Eta ez zan bertoko txakolinaren ospeagaitik bakarrik. Zelai zabalak eta giro edarra izaten zan orduan. Orain, abuztuen, Justuegune dekogu eta hamabostean Ama Birjinaren egune. Ostera be giro eder euskaldun ha ikusiko ete dogu mahatsorrien artean?*

*Argazkia: Euskal Museoak ataratako Eulalia Abaituaren "Gure aurreko andrak" liburutik hartu dogu.*



▶ Iritzia .....	4	▶ Inkesta .....	19
▶ Mahatserria airetik ikusita .....	5	▶ Mahatsberriak .....	20
▶ Begoña eta Euskerea .....	8	▶ Hezkuntza .....	24
▶ Zurbarango jaiak .....	10	▶ Mendi Ibilbidea .....	26
▶ Santutxuko jaiak .....	12	▶ Kultura: Joxin Iturriotz .....	28
▶ Elkarrizketa: Jabier Erize .....	15	▶ Horoskopoa/Agenda .....	30

Honek Bertonek gero ta gehiago emoten dau kalendariduxoa, ze urteko sasoi bakoitxien errepetidu egiten direz kontuak, oin, agostuko numeroan Santutxuko jaidkek, Zurbaraneko jaidkek eta Justuegune. Lengo urteko modure, ta ataraten dauriez hango festetako erretratu batzuk baie onena inoz ez daurie ataraten, egundo ez daurie urteten goixeko ordu txikerretako kontuek.

Ta horreik erretratuek ikusitte, baten batek pensau lei hameko festeak dana direzela teatroa eta jatie, ta gero resultake teatroa lau lagun joan direzela ta jaten (debalde ez bada behintzet), beste lagun bet juntau jakiela hareri laureri, ta beste guztidkek gaueko hamaiketan urten daurie-la etzetik, baie, klaro, fotografoak argirik ez

dekon lez, ba, ez dago erretraturik, lastima. Baie hareik bere Bertonegatik ixengo ez balitza ez leukie jakingo teatroak eta halango gauzek bere egon direzela, ta Jabi Erize ibili zala rusoakaz eta afrikanoakaz jantzan Santutxuko festetan, ha festibala goixeko lauretan egin ezkeru iguel orduen...

Dana dala festetako gauzarik onenak jente gitxien dabilenien pasaten direz, ez fotograforik ez inor, ezpabere preguntau Azkoittiko bertsolaridxen liburue atara dauenari, edo Justuegunien batuten direzeneri, hareik bai, publizidadie gitxi eta urtien-urtien han goidxen ekin ta ekin, iguel hametik aurrera festa sekretuek egin beharko direz.



# GURE BAZTERRAK

## BOLUETAKO SANTA ANA FABRIKA



1841ko ekainaren 8an sortutako fundizioa. Bizkaiko lehen labe garaia, pago ikatzaz zerabiltena. Helburua, burdina lantzea zen, "ahalik eta forma perfektuenak lortzea eta manufaktura hauetako beste berrikuntza batzuei erresuman sarrera emateko".

Romualdo Arellano, Tomas eta Pablo Epaltza, Joaquín Mazas, merkataria aberatsak denek, Boluetako Zubibarrri ondoko orubeak erosi zituzten. Bertan Santa Anaren omenezko ermita, dorretxea, errota eta XV. mendeko ola bat zeuden. Aire pistoi bidez lortzen zuen fabrikak. Ikatzza, ostera, haritz eta pago egurrez eginikoa zen. Burdina, azkenik, hematite gorria, ibaiaz bestalde dagoen Ollargan mendikoa zen.

Lehen eraikina pabiloi luzeez egin zuten, basiliika estiloko pabiloiak hain zuzen. 1903an tranbia eta fabrika lotu zuten eta horrela nabarmen merkatu zuten Arratiatik zekartzaten pago ikatzaren prezioa.

Lantegiak zutarriak, barandak, figurak, farolak, seinaleak eta beste hainbat gauza egiten zituen, denak gaur egun hiri mobiliarioa deitzen dugunaren barruan sartuko lirakekeenak. Bilboko toki askotan imini dituzte Boluetan fabrikatutako burdin piezak. Esate baterako, Bilboko Erriberako merkatu zaharreko burdinazko osagaiak hemen egin zituzten. Baita ere Areatzako (Arenaleko) Isabel IIaren zubikoak. Zubi hura 1845an egin zuten eta erdiko zatia altxagarria zen.

Santa Anako fabrika Bilboko itsasadarreko edo Ibaizabaleko lehenengo industria eremua izan zen.

Iñaki URIARTE

**Bizkaiko Foru  
Aldundiko  
Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria**



**Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria**

**ARGITARATZAILEA:**  
Batana Batu Kultur  
Elkartea

**ERREDAKZIOA:**  
Iturriaga 55, 1. ezk.  
Bilbo - 48004  
Tfnoa:  
94 473 54 48  
e-posta:  
berton@euskalnet.net

**ZUZENDARIA**  
Hektor Ortega  
**ERREDAKZIOA:**  
Arrate Diez,  
Joana Etxebarria, Irune  
Berro, Iratxe Ruiz,  
Erdoitza Martínez  
Unai Cuevas

**ARGAZKIAK:**  
Iñigo Azkona eta  
Xabier Herrera

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**  
Iñaki Berastegi,  
Joseba Barrenetxea

**KOLABORATZAILEAK:**  
Jaione Letamendia, Itxaso  
Perez, Alberto Ugarte,  
Iñaki Gaminde, Igor M.  
de Vidales, Santutxuko  
Bertso Eskola, Iñaki  
Aurrekoetxea,

Joseba Zelaia,  
Benito Fiz

**ADMINISTRAZIOA ETA  
PUBLIZITATEA:**  
Koldo Urrutikoetxea,  
Zuriñe Martínez

**LEGE GORDAILUA:**  
Bi-85-98

**ALE KOPURUA:**  
1.200

berton

## Mahatserria zepelinaren begitik

Gure bazterrak zerutik bertatik gure argazkilariaren  
kameraren objektibotik ikusita



Begoñako elizate zaharreko lurrak airetik ikusita: Castaños eta Uribarritik Otxarkoagaraino

Testua: J. Larrazabal

Argazkiak: Iñigo Azkona

*Egunero ikusi izaten ditugu gure inguruak. Bazterrok ezagunak dira guretzat, sekreturik gabeak. Baina zenbat bider begiratu dugu zerurantz eta gure buruari galdetu diogu zelan ikusiko ote den gurea handik goitik? BERTONEko argazkilariak, Fagor enpresaren gonbiteari esker, bigarren mundu gerraren aurretik famatu izandako zepelin horietako batean hegan egin du Mahatserria zerutik zelangoa den guri jakinarazteko asmoz.*



**IRUDIA SORTZEN DUGU  
BILBO**

Santutxu kalea, 46  
Tfnoa: 944 333 935 www.bilbaoweb.com/Spedro  
Santutxu kalea, 37 E-Mail: Iban.Lopez@navigalia.com  
Tfnoa: 944 128 714

**HORTZ KLINIKA  
GERMÁN BERGARETXE**

GABRIEL ARESTI, 30 4. G  
TXURDINAGA

94 412 82 74

O.P.E.: 0399/97

**CYBER TIME**  
Ordenagailua gurea da  
ideiak, zureak

Sarean Jolasak  
Internet  
Inprimaketa  
Eskanerra  
Datu grabaketa  
Aita Pernet, 1  
48004 Santutxu  
Bilbo  
tfnoa/fax: 94 459 74 06  
E-mail: cyber-time.euskalnet.net  
http://www.cyber-time.euskalnet.net

A  
T  
U  
G  
U  
R  
E  
R  
A




**ZURBARAN** aldea. Argazkiak gure bazterrak gaur egun bestelakoak izan zitezkeela erakusten digu. Arabella, Panera eta Begoñaldeko etxe altuez inguratuta, Zurbarango txalet-multzoa agertzen zaigu, eder eta apal, magalean makurtuta legez. Atzerago, Txurdinagako urbanizazioak eta are asago, Otxarkoagakoak.


**ETXEBARRIA** parkea. Biluzik balego bezala ikusten dugu. Ez jenderik, ez zuhaitzik -apenas-, ezta bestelako hornidurarik. Bakar-bakarrik, zutunik, txiki, tximinia, fabrika zaharreko arrastoa. Eta berdearen gainean marraztuta, bideak, batzuk lodiago, argalak besteak, elkarri lotuta. Plano baten aurrean gaudela ematen du.



**BEGOÑAKO** eleiza. Lerden eta segail agertzen zaigu hemen Begoñako basilika zaharberritua eta, batez be, haren dorre luzea. Zuhaitzen babesean, etxeen ondoran, errepideez hain estu inguratuta ezen besarkatu egiten dutela dirudien. Eta atzealdean arretaz begiratzuz gero, Begoñan oraindik ere ortuak badi-rela ikusiko dugu, garai zaharreko bendejen oinordekoak edo.



**MAHATSERRIA.** Antzinako mahastiak joan ziren eta euren ordeaz Santutxu, Txurdinaga eta Artagan mendiaren inguruak zementuz eta asfaltoz bete ziren. Baina oraindino ibaiak Artagango oinak milizkatzen ditu eta Durangaldeko haitzezko tontorrek, urrunean, paisaia zarratzen dute, mendeetan legez.



*Justu Eguneko erromeria, urtero ospatuten dogu abuztuaren 6an edo hilearen lehenengo zapatuan, baina pertsona zaharran batek izan ezik, inork ez daki orain dala 60 urte bota eben baseleize hori zelangoa zan.*

*Jose Etxarte, baseliza ondoko baserrian bizi izan zan bota arte eta berarengana joan gara. Helburua: memorian gordeta daukan ermita zaharren irudiagaz, Pedro Garmendia ikerlariak "Ermitas del Viejo Bilbao"n idatzi eta egin eben planoagaz, eta Jabi Olazaran pintorearen laguntzagaz, paperean baino ez bada ere, Baseleize hori barrero be altxatzea. Eta bai lortu be!*

# Begoña eta Euskerea


## JUSTU ERMITEA ZELANGOA ZAN

Testua: Koldo Urrutikoetxea

San Justo edo Justuren ermita, Justibaso izeneko parajeen egoan eta antzina antzinakoa ei zan adituen ustez bere eraikuntzari erreparatu ezker. XV.mendeko aipamenak dagoz eta 1547. urtean baseleizeari buruzko datuak aipatuten dauz Labairuk Historia de Bizcayan, Begoñako Andra Mari Patroiaren eta auzotarren arteko auzi baten ganean.

Ermiteak eta ondoko baserriak, etxalde bakarra osaten eben eta, baseleizaren jagolea bizi ei zan bertan.

1941eko urtarrilean bota eben etxaldea eta baseleiza Santa Marina ospitaleko Briñas pabiloia egiteko. Briñastarrak ziran baserriaren ugazabak. Hona Jose Etxartek ermitearen planoaren aurrean zer konta deuskun.



Jabi Olazaran pintoreak egindako Justu baseleizaren irudia

**Berton.- Nortzuk bizi zineen baserrian?**

Jose.- Ni horra joan nintzanean bost urte euki neun eta "el famoso Jaka" aitek eta esaten eurien, hori izango zen Luis Briñasen inkilina kasu beterako eta gero Briñasek emon eutsen loba bateri.

**B.-Etxeko atea zein zan?**

Jose.- Etxeko entrada hemetik izan zen, eta Santa Marina-tik hemen euki eun beste entrada bat, portalea, hau dana da portikue izatez lez.

**Berton.-Ermitearen hormea zelakoa zan?**

Jose.- Harrie. Hiru puntel egurrezkoak, hauxe ermitako atea, hau bizimodukoa, ermita independientea zan, hemen harrizko hormea euki eun. Portikue zabalik egon zan, hormeak metro ta erdi ingeru bai, manposter hormea,...

**B.-Eta hemen bentanak, bi egon ziren?**

Jose.- Bentanea eukin horrek ermiteak, atzetik bakarrik. Bat in eutsien barrie ez dakit ze sasoiatan, izate zen ademas



hemen bajateko roska antzeko barra bat bentanea zabaldu eta itxiteko.

**B.-Ermitearen lurra zelako izen zan?**

Jose.- Lurrek zera euki eun, ladrilo moduko gorrie gastaute egon zan. Portikuen aite defuntuek euki euen mai bet eta egon ziren harrizko bankuek.

**B.- Teilatua zelakoa zan?**

Jose.- Teilatue dana bardin baina bizimoduek altuago, metro t'ardi edo.Ermitera sartuteko peldaño bi eta barruen frente frente puntal bat eta elizan banku korrikuek buelta guztien. Ermita kuadru kuadrin egoten zan e?, honegaz paralelo dana

**B.-Eta kanpoan?**

Jose.- Intxurre hemen eta hemen ingerun beste bat, hemen egon zan bidea eta bide hori oin dauna Hemetik Briñasetik etorri ezker horra basora joaten zen azpigarriek ataraten, hemetik joaten zan, Hemen egon zan ikoa be bai, hemetik etorri eta gure etxean aurre-aurretik pasaten zen jendea, azpigarrigaz eta.

**B.-Ortue edo euki zenduen ezta?**

Jose.- Ortue atzeko partetik egon zan

Etxarte baserria egiteko, Justu ermitako eta baserriko hainbat harri erabili ziran

Justibaso parajea. Hondatuta dagoen Briñas pabiloia ikusi leike sasoi baten baseleiza eta baserria egon ziran lekuan.



**B.-Ura nondik ataraten zenduen patinik edo egon zan?**

Jose.- Aitek iten zeun pozoa ure koiuteko.

**B.-Erropak eta non garbituten zenduezan?**

Jose.- Hori barandillatxu bat dauen lekuan, han egon zan iturrie, pozo bat, han garbituten zan. Oin be urteten dau urek han.

**B.-Basoan zer egoten zan, pinurik edo?.**

Jose.- Pinurik ez, kastaino batzuk eta aretxak

**B.-Eta fruta arbolik edo?**

Jose.- Ba apenas okaran batzuk, dozena erdi edo. Terrenuen eskinetik bidea egon zen, horra abioia dagoen lekura horra urteten zan, Kuribeolanda esaten dakon lekure. Oin sende-rotxu bet dago hor.

### Bazkide txartela

Izen deiturak:	ENA zenbakia:
Helbidea:	Herria: Posta kodea:
Telefonoa:	Lanbidea: Jaioteguna:



**Partehartze mota:**

Bazkide soila

Ekintza jakinetan laguntzaile

Lantaldeko partaide

**Ordainketa:**

Kontu korronte bidez

Asapalaren kontuan

3035 0071 6 071.105864 2

**Kuota korronte bidez**

500 pta

1000 pta

2000 pta

pta

# ZURBARANGO JAIK 2001: ODISEA II



Testua: **Itxaso Perez**

Argazkiak: **Zurbarango Jai Batzordea**

Bada urte bat gazte jendea elkartu zela, asperturik baitzeuden oso, eta jaiak egitea, berreskuratzea hobe esanda, erabaki zutela.

Auzoa ez da oso handia, baina talde batzuk mugitzen dira bertan eta aurtengo jaiak antolatzen ibili direnak hauexek izan dira: Zurbi ludoteka, Zurbarango Eskautak, Imango Mundi Ról Kluba eta Zurbaran Ikastetxe Publikoko Ikasle Ohien Elkarte. Haez gain antzinako jai batzordean ibili izanak ere apuntatu dira laguntza ematera, eta egia esan, asko eskertu diete beren parte hartzea.

Jai Batzordeko bi kide elkarrizketatu ditugu, bata Jai Batzordeko lehendakaria, baina hori legezko gauzatarako bakarrik. Ivan eta Edu, apur bat urduri daude, ez dakitelako zer kontatu, "berde" ikusten dute euren burua horren garrantzitsua den elkarrizketa hau egiteko.

Biak bat datoz auzoak bere jaiak berreskuratu behar zituela esatean. Ondorio hau auzoaren beharren azterketa egin ostean ateratu dute. Izan ere parrokiatik bideratu zen azterketan ikusten zen auzoa "hila" zegoela, auzokideak ez zirela auzoan mugitzen, elkarre gutxi zegoela, ...eta honengatik guztiagatik bi proiektu ikusten dituzte beharrezko: bata, jaiak, eta bestea, auzo etxea. Beraz, eta lan banaketa egin eta gero, jaien ildoari helduz auzoko elkarre gutxiei deia zabaldu zitzaion.

12 edo 13 urte ondoren jaiak berreskuratzean duten helburuetariko bat jendeak auzoa senti dezan, auzoan bizi dadin eta, bide batez, aldarrikapenen bat egiterako orduan, batuago egotea nolabait. Jaietako egitarau "alternatiboa" irakurri beste-



rik ez da egin behar aldarrikapen bat baino gehiago badaukatela ikusteko: " 'Solución Centro' delako errepidean kotxe istripua; Paneraren aurrean. Udaltzaingoen, anbulantzien eta suhiltzaileen sirenek alaitua"; "erlojuaren aurkako aproba: kotxea aparkatu ahal duzun lekuan"; "auzoetxearen inaugurazioa. ZEIN !!?!"; ...eta abar.

Aurten "serio" planteatu dituzte gauzak. Izan ere, pasa den urtekoak "etxekoiagoak" izan ziren, etxetik ibiltzekoak. Jarduera askoz gehiago prestatu dituzte, eta hasierako jendearen

erantzunaren beldur hori uxatu ostean, pozik geratu dira.

Ez dabilta jai jendetsuen bila, bertokoentzat baizik, eta horregatik, ostiraleko berbera errotondako plaza beteta ikustean konforme geratu ziren, hau baitzen lehenengo erronka nagusia. Batez ere auzotik aspaldi ikusten ez zen jendea agertu zelako. Zahar, heldu eta gazte, denak dantzan!

## JENDEA ANDANAKA

Larunbatean eguraldiak goizeko giroa goibeldu bazuen, Opil lehiaketan jende asko parte hartu zuen - 4 pertsonaz osatutako 18 talde guztira -, eta zelan ez, pikea egon zen. Antza, pasa den urteko neskatila talde berbera gailendu zen, eta badakizue, jendea berehala hasten da txarto pentsatzen...

Jai Batzordean egotea, lanean ibiltzea eta gainera, hainbat jardueretan parte hartu behar izatea ezinezkoa gertatzen da batzuetan, eta honexegatik egun honetarako prestatuta zegoen antzerkia bertan behera utzi zuten. Hurrengo urtean izan beharko.

Gezurra badirudi ere tabernetatik egin behar zuten Rallya ezin zuten egin... jende nahiko ez zelako apuntatu, Tabernaz-taberna joaten dira proba batzuk egiten, eta jendeak jarraitu egiten die giro majoa sortuz. Aurten ezin egin.

Arratsalde sardinadari hasiera eman zitzaion... eta ez zen amaitu! Gabeko kontzertuan sardinak ere dantzan ibili omen ziren eta... Honen inguruan,

kexa daukate Jai batzordekoek, jo behar zuten talde batek kale egin zuelako eta kontzertu apur bat desitxuroso geratu zelako. Gainera, Etxebarriako San Joan gaueko ekitaldiari kompetentzia ezin zaio egin. Txapela jaurtiketa lehiaketan, berriz ere, gaztetxoak garaile. Gogor datoz atzetik!

Igandeko diana txistularien eskutik, herri, lasterketa beroketa egiteko eta segituan herri kirolen erakustaldi bikaina eskoletan. Erakustaldi bikaina... auzokideek egin zutena.

Oraingoan, eguraldia lagun zutela, bazkari herrikoia ezin hobeto irten zen. 150 pertsonentzako pentsatuta zeukatena labur gelditu zen eta bat baino gehiago bere etxean egin behar izan zuen. Bazkaria jaisteko euskal dantzak eta pixkanaka jaietako agurra eman behar, erromeria eta zozketaren sariak banatzen.

Edu eta Ivanek egiten duten balorazio orokorra baikorra da, jendeak ondo erantzun duelako eta gero ere, jarduera asko aurrera ateratu dituztelako. Oso pozik daude. Alde ezkorra ere bilatu diote jaiari. Jai Batzordeko kideek hartzen duten lan-zama ez dela berdina batzuk eta besteentzat alegia.

Udalarekin izan dituzten harremanetan, ohikoa denez, oztopo eta traba ugari izan dituzte. Hala ere, jai txikiak izanik trabak jaien neurrikoak izan dira, jakina. Dena dela, traba asko bai, baina gero, lekuan baieztapenak egiteko ez da Udaleko inor



ere agertu. Orduan, "zertarako horrenbeste eskakizun?" galgetzen dute. Udalak ez die erantzun, momentuz.

Barrakarrik ez da izan, lotzeko denboraz txarto ibili direlako. Datorren urteari begira bi helburu daukate: lehenengoa atsendena hartzea, eta bigarrena, jai batzordea finkatuz joan. Eta jarduerari dagokienez, aurtengo berdinak gauzaren bat edo bete doitzu, eta kontzertua baino beste berbera bat egitea pentsatu dute, jendeak hala nahiago omen du eta.

Baita ateratu dituzten hori koloreko kamiseta polit guztiak saldu ere! (txosnan galdetu)

# Santutxuko jairik lasaienak

## Jende gutxixeago bildu badute ere giro polita sortu dute aurtengo jaiek

Testua: Arrate Diaz  
Argazkiak: Iñigo Azkona



***Txiiiin... pum! Akabo Santutxuko jaiak! Eskerrak! Esango du norbaitek, hainbeste zarata, mesedez! Baina gehienoi, zorionez, pena apur bat ematen digu hurrengo urtera arte itxaron behar izateak jaiak berriro has daitezten.***

Badirudi aurten Santutxuko jaiak ez direla lehengo urteetakoak bezain jendetsuak izan, baina tira. Hasteko, lehenengo egunean ez genuen eguraldia batera lagun izan. Gero, Bilbo Zaharreko jaiak ere egunokaz izan dira eta, azkenik, hurbileko herrietan kontzertu potenteak egin dituzte. Horiek denek batera Santutxuko jaietan jende gutxiago agertzea ekarri dute. Horrela, txosnetatik jendea trankil ibili da. Bertan ez da aurreko urteetako jendetza bildu. Tabernariak ere, oro har, aurtengo giroa suabeagoa izan dela diote. Beraz, bata dela edo bestea dela, aurten giroa dezente lasaitu da aurreko urteekin alderatuta. Parte hartzaileen artean nabarmen-

du da beherakada hori. Kasu bat aipatzearren, aurtengo play-back lehiaketa: Ez al da pixka bat tristea talde bakarra aurkeztu izana? Beraz, aurtengo jaiei dagokienez, badugu gogoetarako nahikoa. Hala ere, gauza batzuk primeran atera badira Santutxuko Jai Batzordeari



irakurketa eta txupina. Ostean, txosnak zabaldu, euskal gaztediaren aldeko kalejira eta berbena Basarraten. Hortxe hasi ziren bederatzi egun luzeko jai-sorta!


### DOMEKA GAU KANTARIA

Parranda guztiek hasiera duten moduan amaiera ere noizbait heldu ohi zaie eta batzuek domekan bukatu zuten jaietako lehenengo jardunaldia. Beste batzuk, umeak batez ere, Basarratera hurreratu ziren Kokreta Sopa taldearen berbenan parte hartzera. Hala ere, domekako fama Asapalaren txosnako azken txandak eraman zuen. Goizeko hiruetan, gainerako txosnak itxita zeudela, "txandalariak" bertsotan jo eta fuego ari ziren publiko entregatuaren -eta nahikoa edanda, iturri ez ofizialek diotenez- txaloen artean. Behin asteburuko ajea kenduta, astelehenean, Cantharellus

esker izan da, baduelako nahikoa meritu "Udal santuak" ematen dituen 200.000 pezeta horiekin bederatzi egunetarako ekitaldiak prestatzeak! Izan ere, barrakak, txosnak, kirola, sardinak, perretxikoak, magia, musika, antzerkia, dantzak, kalejirak,... denetarik izan da aurtengo jaietan. Goazen bederatzi egunotan barrena bidaiatxoia egitera! Jai hasiera, eguraldiari dagokionez, ez zen batera egokia izan. Euri zaparrada itzelak izan ziren. Hala ere, "lau tanta txotxolo" ez dira nahikoa santutxutarren festa gogoa zapuzteko. Horrela, behar bezalako hasiera eman zitzairen jaiei: herri bazkaria Sorgintxulon eta, ondoren, Gaztedi dantza taldekoen eskutik, pregoiaren



Nerea Rivas, jai kartelaren egilea, eta Ainhoa Iruña, Gaztediren partez Santutxuko jaietako eta Aste Nagusiko pregoilaria



Magoa ere Santutxuko jaietan egon zen

### KOADRILEN EGUNAK????


Jendeak koadrilen egunetako ekintzetan parte hartzeari muzin egin dio aurtengoan, ez baita seriotasunez hartzen egun horietako jai egitaraua  
Testua: Erdoitza Martinez

Mahatserriko eragile sozialek auzo elkarteek eta koadrilek beti izan dute xarma berezia. Santutxu auzoko jaietan santutxutar guztiak garrantzi handia dute, eurak baitira jaiak aurrera eramaten dutenak. Urtero legez, jaiekin batera, koadrilak bihurtzen dira jaiaren oinarri eta abiaputu, eta, noski, eurentzako ekintza asko prestatzen dira bi egunetan zehar. Aurten ere horrelako egunak egon dira, jaietako asteazken eta osteguna alegia. Aitzitik, urtero ez bezalaxe, erantzuna ez da hain baikorra izan. Agian, gaueko parranda gehiegizkoa izan da eta... ondorioz, jendeak ekintzetan parte hartu beharrean eguna ohean eman du,... Zeinek jakin!  
Asteazkenean koadrilen arteko ginkana egin zen eta partehartzaileek BERTONI azaldu diotenez, jendea ez zegoen batere gogotsu; hala ere, ia talde gehienak aurkeztu ziren. Hori marka! Ostegunean, ordea, herri kirolen saioa heldu zenean, talde bakarra aurkeztu zen. Zeinek irabazi?, horixe galdera zaila, hi! Ez zen probarik burutu, edo zuzenago, talde bakarra agertu zenez probalekura, "irabazleak" -zeoz esateagatik- Deabru Kumeak izan ziren, ausarta bakarrak agian... Gainerakoak, etxean seko!  
Taldea horretako kide baten esanetan, "antolatzaileak eta jendea, biak, orokorrean, nahikoa asperturik daude, izan ere, hainbatek ez dituzte egun hauek seriotasunez hartzen. Inork ez du erakutsi aurreko urteetako beste interesik". Milurte berriko Mahatserriko jaiak umezurtz geratu ote dira? Hala dirudi, koardilarik gabe, festaren gatz eta piperra be galtzen da. Agian, hurrengo urtean, gauzak oso bestelakoak izango dira eta, berriz ere, koadrilei dagokien lekua eurak berak beteko dute. Jaien "ososunaren" adierazle dira neska-mutil taldeak. Aurten katarroa harpatu omen dabe koadrilek, etorkizunaren sano-sano egongo diren itzaropena daukagu mahatserritar guztiok.

mikologi elkartearen eskutik perretxiko dastaketa izan genuen Karmelo plazan egun osoan zehar. Arratsaldean, ostera, jubilatuentzako dantzaldia egon zen Basarraten eta gau partean auzoko emakumeek antolatuta-ko afariaz gozatzeko parada izan genuen. Asteartean, auzoko musika taldeen txanda heldu zen. Basarraten Zumo Negro, R.K. eta Edipo taldeak aritu ziren. Atsedendian auzotik kalejira egin zen. Jaien ekuatorera helduta, asteazkenean, bertso doinuak Basarrate bereganatu zuen, bertsolari ospetsuak afari-merienda egin zuten eta. Berton Sebastian Lizaso eta Arkaitz Estiballes jardun ziren bertso kantari giro ederrean. Arratsalde hartan be, koadrilen arteko ginkana egin zen eta Deabru Beltzek irabazi zuten.

**ASTEBURUAN GORAKADA**  
Ostegunean aurreko egunetan baino jende gehiago nabaritu zen Basarrateko sardinadan. Ondoren larraindantzaren txanda iritsi zen eta, segituan, playback txapelketa egin zen. Aurtengoan badirudi behi zoroek efektu handiegia egin digutela, lehiaketan Iduna emakume taldekoek soilik hartu baitzuten parte. Dena dela, zorionak emakume animatu hauentzat! Play backaren ostean, Deabru Beltzak antzerki taldekoek euren kolore eta suzko ikuskizunarekin jarraitu zuten ikusleen arreta jasoaz. Jaietako azken txanpa ostiralaz geroztik hasi zen. Arratsaldea musikari lotuta egon zen, batetik Santutxuko txistulariak kalerik kale ibili zirelako eta, bestetik, Jatorki abesbatza Karmelo elizan aritu zen. Gauak ere segida eman zion musikari, Ekon eta Kaos Etiliko taldeen kontzertu indartsuarekin. Gazte giroa nagusi izan zen Basarraten. Kontzertuaren atsedendia "Babosoak kanpora!" lelopean emakumeen kalejira egin zen. Eta jaietan egon ezin diren euskal errepresaliatu guztien oroimenez, larunbatean ekitaldiak egin ziren. Eguerdian Basarraten preso, errefuxiatu eta deportatuen aldeko bazkaria egin zuten senide eta lagunek. Arratsaldez, trikipoteoa eta gaueko hamaika eta erdie-tan errepresaliatuen oroimenezko topa egin zuten. Ondoren, kalejira abiatu zen auzoan barrena. Mobilizazioa presoei omenalditxoak eginez amaitu zen. Azkenik, berbena egin zen Sailean taldearen doinu gozoez. Eta jaien despedida egunean, goiz partetik giro polita zegoen Basarraten makailu txapelketako parte hartzaileen eskutik. Gaiteroak eta fanfarreak auzoa musikaz mela-mela eginda uzteaz arduratzen ziren bitartean, koadrila bakoitza bere makailu-jana prestatzeko lanean buru-belarri sartuta zebilen. Arratsaldean, Gaztediren 50. Urteurrena dela eta, ekitaldi ederra ikusi genuen Santutxuko Hockey plazan. Errusiako Siverko dantzariak eta Burundiko Batimbo Burundi taldekoek euren dantzen erakustaldi paregabeak eskaini zizkiguten. Eta Burundikoen danbor hotsak itzaltzen ziren heinean, Santutxuko jaietako hurrengora arte! esaten zien azken trakak jo zuen. Has zaitzekete hurrengo jaietarako prestatzen, berehala datozkigu eta!

# e l k a r r i z k e t a




## Jabier Erize

*"Euskal nekazaritzaren arazoa, Chiapas edo Brasilen bezala, lurra da"*

*Jabier Erizek 41 urte ditu. Zazpi Kaleetako Errondakoa izan arren, 11 urtetatik aurrera Santutxun egin du bere bizimodua. Orain, gainera, Txurdiragan bizi da eta horregaitik danagaitik dio "mahatsorri eginda nago goitik behera". Hainbat urte eman ditu Santutxuko Euskal Eskolan, euskara ikasten lehenengo eta irakasle geroago. Are urte gehiago daramatza Gaztedi dantza taldearekin harreman estuan. Eta aspalditik EHNE sindikatuan dihardu aholkularitza juridikoaren arduradun gisa. Euskaltzale, dantzari, musikari, kultur eragile eta nekazaritzako sindikalista. Kontu guzti hauetaz berbetan egon gara.*

*Testua: Hektor Ortega / Argazkiak: Iñigo Azkona*





### Hamaika urteaz Santutxura hurreratu zinen euskara ikastera...

Bai, orduko Euskal Eskolan hasi nintzan euskara ikasten Joserra Etxebarria eta Lorea Akaiturri bezalako pertsonakaz. Itzelezko gomutak dekodaz ze hori izan zan atea zabaldu eustana gero neure lagun, hartu-emon eta neure bizitzan landu dodazan esparru guztietarako. Nire euskaltzetasuna eta abertzetasuna bertan deskubridu, sortu eta landu egin dodaz. Joserra Etxebarria eta Lorea Akaiturri, bi izen aitatzearen, guretzat aita-ama espiritalak izan ziran.

### Ze urtera arte egon zinen Euskal Eskolan?

Jarraitu jarraitu nahiko nagusitxo izan arte. Ez ondo euskaldun-dua oraindino baina... 1976-77ra arte. Hor etentxo bat egon zan eta Gaztedin askoz be gehiago sartuta nengoan, dantzaren magiagaz eta gehiago lotuta. Geroago ibili naz irakasle moduan, 1980an. Urte hartan titulua atara neban eta eskolak emoten hasi nintzan, lehenengo Begoñan, irakasle falta egoalako, eta beranduago Santutxun. Ordurako AEK zan. Oso gogo handiekin sartu nintzan eta, ikasketekin konpatibilizatuta, hiru bat ikasturte egingo nebazan irakasle Santutxuko Euskal Eskolan.

### Hor amaitu zan zure irakasle karrera?

Irakasle karrera bai. Harrezkero, ez dot egin gehiagorik. Ikasle moduan bai ibili naz UNEDen eta holan euskara sakontzen.

### GAZTEDIN DANTZARI

#### Gaztedin sakonago sartzetarakoan, zer erakarri zituen?

Euskal Eskolan genbiltzan ume talde horretatik asko eta asko dantza taldean ebilen. Orduan eurakaz egoteko, dantzarako

joera berezirik topau barik be, ba bueno 'neu be banoa'. 'Neu be banoa' baina sartu eta ikaragarri gustau jatan. Dantzari hartu neutsan gustu itzela. Lehenengoetatik, eh? 1974-75an, buelta horretan, neure burua oso dantzari ikusten neban.

#### Eta? Dantzari ona izan zinen gero?

Ez dakit ba. Danetarik egin izan dogu. Apur bat beranduago, 1983-84an, beherakaldia egon zan Gaztedin, momentu historiko horretan nahiko arrazoi normalengaitik, erreforma politikoren osteko denboretan, krisialdi galanta euki genduen... Dindirri, Bilboko talde historikoa justu 1982an desagertu zan formaliki. Epelaldi horretan, besterik egon ez eta tokau jatan taldearen zuzendaritza teknikoaren ardura. Oso denbora gitxi egon nintzan, egia esan, ze berehala soldaduzkara joan behar eta geroago, bueltan etorrita, ostera be ibili nintzan. Eta beranduago ibili naz erdi-desertore, gauzak itzi baina beti ere barriro bueltatu, joan-etorriekin.

#### Eta orain be loturarik daukazu Gaztedirekin?

Bai, bai. Proiektu jakinetan agertzen jataz. Orain 50. urteurrenaren ospakizunetan buru belarri sartu naz antolamendu lanetan eta dantza sortze lanetan be bai. Orain gitxi zazpi probintzietako dantzaldia egin dogu Euskalduna jauregian eta neuri egokitu jast muntaian koreografia berezi bat sortzea eta oso gustura horregaz. Ze dantzari moduan Gaztediren ardurarekin nenbilen garai hartan eta musikari moduan, trikitilari ere ibili nintzan orduan, eta garai hartan ez zen hori oso ikusia hemendik. 1981ean hasi ginan hemen, Santutxun, horrekin. Horri esker, eta dantzari dantzarekin oso gustura egon nazena izanik, Iparraldearekin harreman handietan ibili gara, lehenengo trikitilari

moduan joanda eta gero dantzari Etorki taldean...

#### Zein zen Etorki taldea?

Garai hartan euskal folkloreko dantzak egiten ebazan baina sasi-profesionalizatuta. Lapurdiko, Philip Oihanburu da taldeko sortzaile eta urte askotako zuzendari. Olaita eta Oldarra, bi horiek kenduta, Etorki litxake erreferentzia baina euskal balletarena. Hor buru belarri pare bat urte ibili nintzan, teknikoki Oihanbururengandik gauza

aldean Hegoaldeko talde baten eskutik. Urbeltzek eginda eukan lan bat baina gure ustez planteamendu oker bategaz, hau da, kopia hutsa egin eta Donostiako plazan Zuberoako euskaraz egin. Mimetismo huts batekin egin eben. Gure ustez, maskaradak eukan komunikazio zentzu hori eta bere osotasuna hartuta ez egoan eginda Hegoaldean. Geuri ia ezinezkoa zala iruditzen jakun. Orduan eskatu eustien Zuberoako dantzak irakasteko eta hasi ginan eta 1991-1992an hasi ginan saioak egiten eta 1994ko urtarrilean emon genduen lehenengo maskarada saioa. Urte bi lanean.

#### Zelan egin zenuten?

Euskal dantzetan beti dago arkeologia egiteko joera, azalpenak beti dira iraganerako bidaia. Baina Zuberoan maskarada hain fenomeno bizia izanda hasi ginen gaur eguneko arrazoiak bila, gaur eguneko zentzuaren bila. Deskubritu genduen da maskarada komunikazio bide bat dala, eta ez bakarrik berben bidez. Maskarada jokoa bera Zuberoaren agoniaren kontrako ekintza bat zen. Euren tradizioz zaharrena hartuta orainaren eta etorkizunaren aldeko apustua horren bitartez adierazten dabe. Geuk geure egoerara moldatu genduen, koplak bizkaieraz paratu genduzan eta ofizioak be hemengoan bidetik egin genduzan. Esate baterako kerestuak biarnesez egin beharrean galegoz egiten eben. Ez zan galegoen trufa bat, ohore bat baino! Gure asmoa honako bertso honetan islatu genduan:

*Ohitura zaharrak bide berriak urratu nahirik gabiltza  
Lau haizeetako euskaldunontzat maskaradak dakar hitza  
Elkarrekiko ezagutza da ondoko zerbaiten giltza:  
Herri bakar bat izan nahiaren ezinbesteko baldintza*

Maskaradaren formak hartu bai baina sakonekoa be bai eta Zuberoatik Santutxura ekarri. Eta aurretik bertokoakaz barrikadak, predikuak eta abar prestatu behar dozuz.

### EHNEN ABOKATU

#### Zelan egiten da abokatu ikasi eta EHNEn amaitu?

Kasualidadez eta ariniketan. Karrera amaitu eta irailean EHNEn sartu nintzan. Deustuko Unibertsitatean Euskal Kultur Mintegian nenbilen eta hango lagun batek, Manu Marañonek, EHNEn ebilen abokatu eta bestelako lanetan hasi zanean sindikatu barruan deitu ninduen han sartzeko. Niretzat baserritarrena oso mundu ezezaguna zan baina ilusio handiz sartu nintzan gauza polita izango zalakoan. Ez daukat damurik batera. Hamasei urte egin dodaz.

#### Orain zara aholkularitza juridikoaren arduradun nagusia...

Bai. Ganera, sartu nintzanean ez egoan ezebez eginda. Erronka eta erantzukizun handia zan, 'erdu eta montai zu kabinete juridikoa ezerezetik, hutsetik'. Ederra izan da batetik askatasuna egoalako nahi bezela egiteko eta gero ikustea zelan egin dogun prozesu luze baten bitartez. EHNeko langile eta militantea naz, suerte ikaragarria da norbere ogibidea eta aktibismoa uztartu ahal izatea.

#### Zeintzuk dira EHNE auzibideetara jartzen dituzten gai nagusiak?

Zibilak. Klasikoak. Gero eta gitxiago, halere. Hor bi esparru bereiztu behar dira, batetik sindikatuaren beraren auziak eta, bestetik, sindikatuko baserritarrenak. Sindikatuarenak zuzenbide administratiboagaz dagoz lotuta. Nekazaritza politika osoa zuzenbide administratiboa dira. Baserritarren gaiak, aldiz, hein handi baten auzi zibil klasikoenak dira. Hori be polita da. Baserritarrek badaukie kultura juridiko zabala, zer esanik ez uritarrek


pilo bat ikasita. Beste herrialdeetako dantzak eta ikasteko Etorki arragoa zan, han zazpi euskal herrietako dantzariak elkartuta eta Pariseko operan dantzatutakoak eta profesionalak eta... eskola paregabea izan zan horretarako. Zer esanik ez! Bertan ikasitako guztia hona ekarri...

#### Hortik etorri ziren Gaztedik egin zituen maskaradak?

Handik. Zuberoako dantzetaz dakidana hortik etorri da. Beti gustau jataz euren konplexutasun tekniko eta edertasun horregaitik. Jakina, harremanetan nengoan hango dantzariakaz, dantza-maisuakaz be bai, eta nire zorionerako ez eze, Gaztedirako be aprobetxatu izan doguz.

#### Zenbat maskarada egin zenituen?

Proiektua oso pretenzioso zan. 1991n gure berrogeigarren urteurrena ospatu genduen. Guri tokau jakun Zuberoako dantzen ardura eta hortik etorri zan, erdi txantxetan, 'ba hau egin ahal dogu'. Artean maskarada bat osorik ez egoan eginda Hego-



baino askoz be sakonagoa. Baserritar kulturen bizi-bizirik dago. Dena dela, baserria oso eraldatze handia sufritzen ari da orain. Beste batzuk egon dira lehenago baina beharbada ez orain ikusten dugunaren parekoa.

**Eta norantza doa baserria? Ezagutu dugun baserria desagertuko al da?**

Hori da joera. Ingalaterra edo Estatu Batuetako nekazaritzan ez dago baserritarrik, ezta Danimarkan eta beste toki askotan. Nekazaritza industrialala da, beste gauza batzuei lotuta. Herrialde zenbat eta 'aurreratuago' baserriko nekazaritza orduan eta pisu gutxiago dauka harik eta desagertu arte. Hori guztiontzat antolatu eta inposatu nahi deuskuen eredu. Hemen 60. urteetan etena egon zan industria baserritarren bizimodua be bihurtu zanean. Baina orduan nekazaritza eta industria buztartu ziran. Orain desagertzen dana guztiz desagertzen da, guztiz.

**Prozesu horretan behi eroen eta antzeko krisien eragina zein da? Kalitatezko nekazaritza indartzen dute ala hondatzen dute?**

Holango eskandaluak gaixotasunaren sintomak dira. Berehala ondorio txarrak datoz baina, aldi berean, ondo dago horrelako gauzak agertzea benetako gaitza zein dan diagnostika dagine. Gure inguruko administrazioek politika oso okerrak jarri dabez indarrean, oso segidismo handiarekin. Beraz, neurri batean geu poztu be egiten gara begiak irekiarazteko balio izan deuskulako. Behi eroen krisia EHNEK aspaldian iragarri eban eta oraindino beste batzuk etorriko dira. Problema da zelako produkzio sistema, problema da lur barik egin nahi dugula nekazaritza. Horregaitik, gure ustez erroetara joanda

benetako problema lurrarena da. Bardin Brasileria joanda,... Hemen lurra industria, etxebizitzak, azpiegiturak eta hirugarren sektoreko eraikuntzak egiteko baino ez dugu gordetzen?

Hori da. Eta ez da bakarrik hori. Lurra -nekazaritzako produkzio faktoretzat hartuta- lurzorua -edo zertarako euskarria- bihurtzen dogunean, lurra izateari izten deutso eta kapital bihurtzen da. Orduan nekazaritzako produkzio faktore hori produktorearen eskuetatik kanpo gelditzen da. Lurraren merkaturan ez da lurrik agertzen, lurzorua baino. Lurra gure benetako problema da hemen, Euskal Herrian, mendebaldeko gizarte aurreratuetan, eta bardin Brasilen eta Chiapasen. Manifestazio diferenteak baina arazoa bakarra. Hori da gehien kostaten jakuna gizarteari helaraztea.

**Gurean hori al da baserriak daukan arriskurik handiena?**

Bai. Termino handietan bai. Termino txikiagoetan, maila hurbilago batean erronkak beste batzuk dira. Esate baterako, hemen merkatuak praktikamente gainezka dagozala. Hemen hautu ideologiko bat egin beharra dago. Hemen gauza batzuk denonak dira eta antolatu behar dira, ezin dira itzi merkatu guztiahaldunaren menpe. Ez osasuna, ezta elikadura, esate baterako. Zein da Bizkaiko problemarik hurbilena? la produktu guztietan oso defizitarioak gara. Mundu osoan eredu autozentratuak garatu behar dira, baina gurean hori beharrea baserriaren galerá ikusten dogu bere produkzio sistemagaz, bere kultura zabalagaz. Momentu honetan Bizkaian desertzioa gertatzen ari da. Esne azpisektorean, esate baterako, ez dakit inor geldituko ete dan. Desertzio erabatekoa. Esanguratsua.

**Desertzioa egiten dutenek beste nekazaritza produkzio-tara aldatzen dira ala uzten dute?**

Hori da problema. Praktikan izten dabe. Trantsizio epe bat egongo da, orain ardiak ipinten dabez hori erraza dalako baina prozesua hor dago. Lau-bost urtetan ikusi dogu.

**Esnearen sektorearen krisian lparlaten jarrerak zer ikusirik euki al du?**

Bai. Geu oso kritikoak izan gara lparategaz. Azkenean merkatuaren arauetan jausi dira eta, hemen iragartzen dot, gitxi falta da lparlat formalki multinazional baten eskuetan egoteko.

**Abiadura handiko trenaren (AHT) kontrako alegazio asko jartzea tokatu al zaizu?**

Apurtxo bat bai. AHT landu dot, baina hori baino gehiago Bizkaiko Errepideen Planaz arduratu naz. Eta kezkatuta gagoz astakeria handia dalako eta inork ez deutso aurre egin geuk izan eze. Lurra zatikatu eta banatu nahi da astakeriak egin ahal izateko.

**Zergaitik iritzi hain ezkorra?**

Gero eta errepide gehiago egiteko demandari erantzuteko modurik ez dago eta hondamendira eroaten gaitu. Azken batean espiral deabruzko baten aurrean gagoz. Demanda hori ase-tuaz demanda barria sortzen da eta hori denek, Diputazioak be bai, aitortzen dabe. Baina problema da dana. Errepide Plana gehi AHT, gehi industrialde barrietarako eremuak, gehi merkatalgune handietarako eremu barriak, ... horreek egiten daben espazioaren okupazioa! Ganera beharizan barik! Ze lehen funtzino guzti horreek espazio txiki batean egiten eben. Orain ez! Orain kontsumoa non? Hemen. Horretarako leku bat behar da. Nahasten da kontsumo eta aisialdia. Horretarako kriston errepidea behar da. Merkataritza txikia, bitartean, gure aberastasun sozialaren zatia dala, desmantelatu egiten da. Hori historia guztiekin egiten da eta gero datoz esaten AHT behar dala, errepide gehiago behar dala... Zertarako? Norentzat?

# ZER IRUDITU ZAIZKIZU AURTENGO SANTUTXUKO JAIK?



**UNAI (ARABELLA)**

Ez naiz sekulan egon. Ezin dizut ezer esan Santutxuko jaietaz.



**GOIURI (SANTUTXU)**

Ez dira oso ondo antolatuta egon eta gainera eguraldia ez du batere lagundu.




**MAIDER (SANTUTXU)**

Egon naiz baina ez asko. Kontzertuak bakarrik gustatu zaizkit. Gauetan kontzertu eta berbena egon da, besterik ez.



**JONATHAN (TXURDINAGA)**

Ni ez naiz egon. Entzun dudanez, aurten oso giro soso izan da. Beste lekuetan ere kontzertuak izan dira eta jendea hara joan da. Baina behintzat egon dena ondo egon da.



**UNAI (OTXARKOAGA)**

Aurten hobea-goak izan dira. Neuk behintzat hobeto pasatu dot. Jende gitxiago baina igoal horrela hobeto.



**MIKEL (TXURDINAGA)**

Ez naiz gehiegi egon baina ondo egon dira. Kontzertuak eta, ondo, baita kale-jirak ere.



**GALDER (BILBO ZAHARRA)**

Ez naiz egon baina ondo egon direla esan didate, batez ere kontzertuak.



**ANA (SANTUTXU)**

Bai, ondo egon dira. Beste urteetan baino hobeto. Txosnak eta giroa ondo egon dira.

## Abuztuaren 4, Justueguneko erromeria

Otxarkoagako Peña Pa Ya!k egitarau polita prestatu du euskal jaia egiteko asmoz

Testua: *Itxaso Perez*

Urtero legez mahatsorriok badugu hitzordu garrantzitsua abuztuaren lehenengo zapatuan. Gure bazterretan Begoñako basilikan egiten direnak izan ezik gelditzen den erromeria bakarraren eguna izango da hilaren 4ean. Bai, Justueguneko erromeria, Otxarkoagako Peña Pa Ya!ren eskutik euskal zapoeraz gainezka datorkun jaia.

Askotxo dira egin diren saioak, eta iada ez dago aitzakiarik erromeria egun horretan kale egiteko. Abuztuaren 4an izango dira ekitaldi nagusiak baina bezperatik gozatzeko aukera izango dugu Tetuane Landan jarritako txozna eta musikarekin. Tetuane landa, baten batek ez badaki, El León jatetxearen ondoko zelaia da. Autoz eta oinez errez hel daiteke eta toki ederra da erromeria egiteko eta hango arbolen gerizan egun pasa egiteko.

## GOIKOETXEN HASI

Justuegunean bertan, eta larunbata izan arren, meza santua egingo da Arbolantxako Goikoetxe baserrian, goizeko hamaiketan. Honekin erromeriarri hasiera emango zaio eta lehenengo bolanderak botata txokolatea, trikitixa eta dantzaldiari bidea emango zaie.

Goikoetxe baserrietik, eta bakoitzak aukeratzen duen bidetik, Avril mendira abiatzeko garaia izango da Andoni Egaña, Jexux Mari Irazu eta Igor Elortzak eskainiko diguten bertso-saioa entzuteko. Bertsolarien izenak irakurrita nahikoa da zelako maila altua egongo den jakiteko. Euskal Herriko eta Bizkaiko txapelak eta Gipuzkoako bertsolari gazterik baliotsuenetako bat. Ez da ez txantxetako programa! Urtetik urtera goiari eusten diote Pa...Ya!koek.

Bertsolarien ostean ziur asko soinu joleen emanalditxoak izango dugu urtero lez, baina ez zaitezte despistatu eta bazkarirako izena eman garaiz, bestela, belarra-edo jan beharko duzue... Hala ere, menuari buruz galdetzean ez dute daturik eman nahi izan. Almax kaxa bat- edo eraman egizue, badaezpada.

Jan ta lo, potolo, beraz. Baina hobe lorik ez eta, esate baterako, musean jardun zaitezke. Lehia, dudarik ez izan, gogorra izango da. Mus txapelketa lau eta erdietan hasiko da Tetuane landan bertan.

## HERRI OLGETAK ETA DANTZALDIA

Burua bero, musa eta gero, arratsaldeko bostak inguru

**Justuegun 2001**

**Abuztuak 4 Zapatua**  
**Tetuane Landan (Avril Mendian)**

**EGITARAU**

11etan: Meza santua  
Arbolantxako Goikoetxe baserrian. Ostean, bolanderak, txokolatea, trikitixa eta dantzaldi.

13'30etan: Bertsolariak:  
- Andoni Egaña  
- Jexux Mari Irazu  
- Igor Elortza

15etan: Herri Bazkaria

16'30etan: Mus Txapelketa

17etan: Herri Jokoa

19'30etan: Erromeria  
- Xibiri taldea

Oharra: Bezperan (Barikua) iluntzeko 8etatik aurrera, Txozna zabalik egongo da musikagaz.

*Pa...Ya Euskal Kultur Elkarte*

herri jokoei hasiera emango zaie: txinga-erute, sokatira, ...eta edonork asmatzen duen beste edozein jokotan ari-zeko aukera izango dugu.

Plater onena postrerako utzi ohi da, eta aurtengo erromeria Xibiri taldeak alaituko digu gaueko ordu txikiatar arte. Zatozte, ondo pasa eta gora Justuegun!

Garai zaharretan asko ziren mahatsorriek euren bazterretan egin ohi zituzten erromeriak. Gaur egun bakar-bakarrik gelditzen dira Begoñako basilikaren babesean egiten diren biak -abuztuaren 15koa eta urriaren 11koa- eta Justuegunekoa. Gainera, hiru hauetatik bi, Justuegun eta Begoñako Ama Birjiñarena -urriaren 11- azken urteotan suspertu dira, bertoko taldeen ekinaren ekinaz.

## Badabil Castaños eta Matiko arteko igogailu berria

Funikularreko plazaren eta Tiboli kalearen arteko hamahiru metroko aldean dohain salbatzen du

Uztailaren 2tik aurrera jardunean dago Castaños eta Matiko auzoak lotzen dituen igogailu berria. Aspaldiko eskaera da aldatzez betetako alderdi horretan. Igogailuak Funikularreko plazaren eta Tiboli kalearen arteko desnibela salbatzen du. Eta egin debalde egiten du, herritarrek txakurtzikirik ere ez dutela ordaindu behar.

Bilboko alkate Iñaki Azkunak inauguratu zuen bazter mahatsorri bi hauek lotzen dituen igogailu berria. Izatez, Bilboko Udalak eta Eusko Trenek erdibana ordaindutako inbertsioa da. Igogailuko ate bietako bat Castañosen dago, Artxandako funikularreko geltokiko sarbidean bertan. Hortxe har liteke Matikoraino igotzeko. Goiko geltokia Matikoko tren geltokiaren ondoan dago, Tiboli kaletik hur-hurrean.

Igogailuak hamahiru metroko bidea egiten du. Motor hidraulikoa dauka eta bere baitan hamahiru lagun eraman dezake gora eta behera. Segurtasun eta zelata zerbitzuak dauzka. Esate baterako, arazo mekanikorik baleuka igogailua automatikoki beheko geltokira joango da. Handixetik aterako lirateke barruan doazen herritarrek.

Obrak, guztira, 93 milioiko inbertsioa eskatu du. Diru hori erdibana jarri dute, esan legez, Bilboko Udalak eta Eusko Tren konpainia publikoak. Igogailuaren lanak ez ezik, diru horrekin Tiboli kalearen inguruan urbanizazio lanak egin dira. Gainera, inbertsio horren ondorioz, herritarrek ez dute pezetarik ordaindu beharko igogailua erabili ahal izateko. Musutruk egingo dute.

Inaugurazioan, Iñaki Azkuna alkateak nabarmendu zuenez, "Matikok arazo eta gabezi asko ditu. Gaurtik aurrera, beste asko gelditzen badira ere, arazo bat gutxiago dauka".

## ORDUTEGIAK

Urtean zehar Matikoko igogailua goizeko zazpiak eta laurdenean hasiko da lanean eta egun osoan etenik egin egin barik gaueko hamarrak arte iraungo du bere zerbitzuak. Domeka eta jaiegunetan ordubete beranduago -8,15etan- hasiko da gaueko hamarrak arte segitzeko gero.

Hala ere, uda parte honetan, ordutegia apur bat diferentia da. Izan ere, zapatu, domeka eta jaiegunetan oro har, amaitu gaueko hamaiketan amaituko da, urte osoan zehar baino ordubete beranduago beraz.



## MAHATSORRIEN IGOGAILUAK

Bilboko igogailu publiko gehien-gehienak gure bazterretan daude. Zaharrenetatik hasita eta, Matikokoa kasu, zabaldu berri diren etarora, mahatsorrien zerbitzura daude instalazio hauetatik ia denak.

Aspaldikoetatik hasita, Begoñakoa -Esperantza kaletik Mallonara doana- eta Solokoetxekoa -Iturribidetik Solokoetxera- dira gurean gehien erabili diren etaroko batzuk. Biak Udalarenak dira eta ordaindu beharrekoak dira. Kasu bietan aldatza gogorak saihesten dira igogailuen bidez. Mahatserriko beste bazter batean, Salbe zubian, beste igogailu publikoa dago ibaiaren eskuin izarretik zubiko goialdera igo ahal izateko. Uribitarteko pasarela zabaldu zen arte Castañosetik Abandora joateko bide bakarra zen Udaletxeko zubiraino joan ezean. Igogailu hori ere Udalarena da eta ordaindu beharrekoa.

Azken urteotan Eusko Trenek euki du zer ikusia igogailu berriekin. Lehenengoak Zumalakarregi etorbideko bere geltokia eta Uribarri eta Zurbaran auzoak lotzen ditu. Iazko uztailean jarri zuten martxan 70 milioi pezeta gastatu eta gero. Kasu honetan ere ordaindu beharrekoa da, trenaren hartzera doazentzat izan ezik.

Bada beste igogailu bat gurean antzeko zerbitzua ematen duena. Metroko Zazpi Kaleetako geltokiko igogailua Mallonaraingo igotzen da. Metrora doazenek dohain hartu ahal dute eta gainerakoek bidai bat gastatu behar dute. Edozelan be, hileko txartelaren edo gazte txartelaren jabeek txartel horiekin pasa dezakete ezer ere ordaindu barik.

## Udalak ez du oraingoz telefono mugikorretarako antenak ipintzeko baimen gehiago emango

EAJ eta EA birritan ahaleginu dira antenak ipintzearen alde baina gainerako alderdiek euren asmoa zapuztu dute

*)Bilboko Udalak ez du, oraingoz, telefono mugikorretarako antenak ipintzeko baimen gehiago emango. Horrela erabaki zuen ekainaren hondarretan eginiko udal batza osoan eta berretsi zuen uztailan eginiko hurrengo bilkuran. Kasu bietan EAJ eta EA baimenak ematen jarraitzearen alde agertu ziren, Bilboko Udalak osterantzean kalte-ordain handiei aurre egin beharko dielakoan.*

Ekainaren 28ko udal batzar osoan EAJ-EAK ez beste alderdi guztiek patrikera telefonoetarako antenak ipintzeko baimenik ez ematea erabaki zuten. Inñaki Azkunaren gobernuak, beti legez gutxiengoan diharduela, porrota jaso zuen kasu honetan gainerako alderdi guztiek bat egin zutelako Bilboko hainbat bazterretako auzoek egindako eskariarekin.

Orduz geroztik alkateak lau haizeetara zabaldu du horrelako erabaki batek Bilboko Udalarari hondamendia ekar liezaiokeela. Izan ere, Azkunak dioenez, Udalak ez dauka horrelako agindurik emateko kompetentziarik. Ondorioz, erabaki horren ildotik kaltetutako enpresek Bilboko Udalaren kontra jo lezakete auzitegian. Behin epaileen artean sartuta inork ez daki zer gerta litekeen baina, kasurik txarrenean, Udalaren lepotik kalte-ordain handiak jasoko dituzte enpresa horiek. "Arduragabekeria da", esan zuen Bilboko alkateak, "datozen urteotan milioi asko ordaintzera kondenatu ahal digutelako".

### UDAL BILKURA BERRIA

Alkatearen ardura horren emaitza gisa, bere gobernu taldeko alderdiek, EAJk eta EAK, mozio bat aurkeztu zuten uztailaren 24ko udal bilkura osoan eztabaidatzeko. Alderdi bion proposamenaren helburua aurreko batzar osoan hartutako erabakia bertan behera uztea besterik ez zen. Argudioa, esan legez, Bilboko Udalak ez zeukala horrelako erabakiak hartzeko gaitasunik eta, ondorioz, bere kaltetan izan litekeela.



EAJ eta EAren mozioak ez zuen aurrera egin. Gainerako alderdiek kontra egin zioten eta aurreko batzarreko erabakiari eutsi zioten. Oposizioko taldeek gogor kritikatu zuten Azkunaren jarduna eta udal batzar osoak erabakitakoa bete dezala exijitu zioten. Batasuna eta EB taldeetako bozemaileek alkatearen kontra jo zuten esanez nahikoa zela enpresen interesak defendatzeaz eta ea inoiz hasiko ote den bilbotarren interesei eusten.

Ondorioz, udal batzarra amaitu eta gero Bilboko

Udalak ekainean hartutako jarrerari eutsi zion eta, oraingoz, ez du sakelako telefonoetarako antenak jartzeko baimen gehiago emango.

### AUZOAK KEXAKA

Etxeetako teilatuetan horrelako antenak jartzen hasi zirenetik Bilboko hainbat toki eta bazterretan auzoen kexak altxatu ziren. Eurretatik asko mahatsorriak izan dira. Izan ere gure artean horrelako borrokan sartuta ibili dira Begoña, Tutulu, Azurleku, Zurbaran eta Uribarriko bizilagunak. Mahatserritik kanpo, Iralan eta Errekalden be haizatu dira telefonoetarako antenen kontrako ahotsak.

Auzoon iritziz, antena horiek kaltegarriak izan daitezke hur-hurrean bizi diren pertsonentzat. Honez gero auzitegiek behin eman diete arrazoia. Bilboko epaile batek Erandioko etxe bateko teilatutik antena kentzeko agindu du, bertako bizilagun baten eskaria ontzat jo eta gero.

ZURE PUBLIZITATEA

BERTON

94 473 54 48



**PRESOAK KALERA  
AMNISTIA OSOA!**

**SAAK**



Oleta, s/n - 48970 BASAURI  
Tel. 94 426 08 08  
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO  
Tel. 94 411 08 55  
adiasesor@adi.euskalnet.net

**Zergak-lan harremanak  
kontabilitatea juridikoa  
merkatalgintza**



## Euskaltelek Tourrean begoñako erretorearen bedeinkapena izan du

Jesus Garitaonandiak talde euskaldunak lasterketa frantsesean erabili behar zituen ibilgailuak bedeinkatu zituen

Orain dela gutxi Tourra bukatu berri duen Euskaltel-Euskadik, Frantziara abiatu aurretik Begoñako basilikako erretore Jesus Garitaonandiarren bedeinkapena jaso zuen Derion burutu zen ekitaldian. Ekitaldi horretan, talde euskaldunak Tourrean erabili izan dituen ibilgailuak aurkeztu ziren.

Bedeinkapena eman aurretik, Jesus Garitaonandiak, Euskaltel-Euskadi taldearen alde otoi egiten zuela eman zuen aditzera. Gainera, taldeko managerra den Miguel Madariagak igandero-igandero Begoñako eleizara joaten dela argitu zuen.

Babes horrekin, inor ez da harrituko Euskaltel-Euskadi taldeak Tourrean egindako lan politaz. Roberto Laiseka algortarraren etapa garaipena -non eta Luz Ardidenen, Tourmalet igo otean-, sailkapen orokorrean Inigo Chaurreauren hamabigarren postua eta taldekideek beste etapa bitan lortutako bigarren postuak ez dira ahuntzaren gauerdiko eztula. Are gutxiago Tourrera lehenengoz doan ekipo apal batentzat.

Euskaltel-Euskadiren balantzan arrakasten baltaldean etapa batean ekipo osoak -Chaurreau izan eze- galdutako hamazortzi minutuak eta, batez ere, Txema del Olmoren ustezko positiboa jarri behar



dira. Hala ere, bi kontuok ez dute ezertarako ere iluntzen ekipoak egindako balentria.

### BEDEINKAPEN EKITALDIA

Inigo Azkonaren argazkian ikusten den legez, Jesus Garitaonandiak Euskaltel-Euskadiren ibilgailuak bedeinkatzeko ondoan Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakaria, Jose Antonio Ardanza Euskalteko presidentea, Josu Bergara Bizkaiko Aldun nagusia eta Miguel Madariaga Euskadi fundazioko presidentea zituela. Ekitaldia Derioko abadetegiaren edo seminarioaren aurrean egin zuten.



**ASAPALA**  
KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon  
topagunea eta elkarte  
egin guran gabiltza

**Zeuk ere euskararen ardura badaukazu,  
batu gurera!**

Hemen gagoz:  
Iturriaga 55, 1. Ezkerra  
Tfnoa. : 944735448  
E-posta: asapala@eusnet.org

## Hiru urteko ume mahatsorrien erdiak D ereduan ikasiko du irailtik aurrera

Erdara hutsez %9 baino ez da arituko, irakaskuntza publiko eta pribatua kontutan hartuta

Mahatserriko gurasoek haien seme-alabentzat euskarazko irakaskuntza nahi dute. Horrelaxe diote beste urte batez irakaskuntza publiko zein pribatuko aurrematrikulazio datuek. Dañoren irailean eskolara joango diren hiru urteko ume mahatsorri ia denek euskaraz ikasiko dute. Gehien-gehienek D ereduan hartuko dituzte eskolak -euskara hutsez- eta beste askok B ereduan -euskaraz eta erdaraz-. A eredua bazterreko bihurtu da nabarmen, umeen %9 baino ez baitu bilduko.

Aurrematrikulazio kanpaina otsailean egin zen. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak emandako datu ofizialen arabera, Mahatserriko ikastetxeetan, publiko zein pribatuetan, hiru urteko 804 ume matrikulatu zen. Eta datuak argi-argiak dira: 420 ume (%52.2) D ereduko eskoletan apuntatu dira. Ume mahatsorrien erdia baino gehiagok euskara hutsez ikasiko du, beraz. Duda barik, aurrerapauso handia gurean ere euskara atzera be hizkuntza zabaldua izan dadin.

Irakaskuntza elebiduna, euskaraz eta erdaraz, 312 (%39) umeen gurasoen hautua izan da. B eredua eta D eredua elkar hartuez gero, hiru urteko hamar ume mahatsorritatik bederatzik euskaraz ikasiko du. Besteak A ereduan erdaraz hutsez ikasiko du. Horrelako lerroetan 72 ume (%9) daude izena emanda.

### D EREDUAREN AURRERAKADA

Gurean D eredua, euskara hutsezkoa, nagusi da hala irakaskuntza publikoan nola pribatuan. Publikoan azken urteotako joerari eutsi dio eta iaz baino matrikula gehiagoratu ditu. Urte bitan 149 umetatik 195etara igaro da.



Hezkuntza sailak Mahatserria bi alderditan banatzen du -Txurdinaga eta Uribarri- eta bietan D eredua jaun eta jabe agertzen zaigu.

Eta D eredua nagusi ere irakaskuntza pribatuan. Denetara 225 umeen matrikulak jaso ditu sare publikokoak ez diren ikastetxe eta ikastoletan. Haren atzetik gelditu da B eredua (214) eta urrunurrunean erdaraz hutsezkoa.

B ereduari dagokionez, bere indarra irakaskuntza

pribatuan dago. Izan ere, urterik urte sare publikoan matrikulak galdu eta galdu dabil. Ikastetxe pribatuetan, ostera, gorantz doa, desagertze bidean dagoen A ereduaren kalterako. Urteetan erdaraz hutsez irakatsi duten kolegio askok B eredurako jauzia egin du, gurasoek haien seme-alabak euskaldunak izan daitezcan nahi dutela konturatuta.

### ERDARAZKO HEZKUNTZAREN PORROTA

A ereduaren gainbehera ikusgarria izan da gurean. Orain urte asko ez dela jaun eta jabe zena gaur egun desagertze bidean dago. Bazterrean ahaztuta geldituko dela ematen du. Edota multzo baztertuotako umeak baztertuta segi dezaten baino ez duela balioko. Hala dirudi gaur egun. Gainbehera horren isla nabarmena izan daiteke Uribarri osoan aurten lau ume baino ez direla matrikulatu A ereduan, gela bat osatzeko minimoa baino gutxiago alegia.

Azken urteotako datuok esanguratsuak dira oso. Sarritan kontrakoa esan bada ere, gurean irakaskuntza pribatua ez da A ereduaren sostengua. Ikastetxe horiek, urteetan erdaraz hutsezko irakaskuntza eman dutenak B eredu

elebidunera pasa dira, gurasoen joera euskaltzaleari muzin egin ezinda baitaude. Mahatserriko ikastetxe pribatuetan 25 ume baino ez dago A ereduan izena emanda. Irakaskuntza publikoan, ostera, 47 dira aurrematrikulak, iaz baino 8 gehiago. Erdara hutsezko hezkuntzak, beraz, irakaskuntza publikoan dauka bere azken gotorleku, hortxe ere desagertzeaz badago ere.

### PUBLIKO ETA PRIBATUA

Aurten matrikulatu diren zortzirehun ume horietatik gehienek irakaskuntza pribatura jo dute. Izan ere, ikastetxe eta ikastola pribatuetan 464 ume daude izena emanda, ume mahatsorrien %57.7. Gainerakoek, 340 alegia, sare publikoko ikastetxe eta ikastoletan ikasiko dute. Azken horiek, aurreko urteekin alderatuta, apurka apurka gorantz doaz. Orain urte bi 334 izan ziren sare publikoan egindako aurrematrikulazioak.

### 2001-2002 IKASTURTERAKO HIRU URTEKO UMEEN MATRIKULAZIOAK

EREDUA	TXURDINAGA	URIBARRI	PUBLIKO/PRIBATU	OROTARA
D	142	53	PUBLIKO	195
B	74	24	PUBLIKO	98
A	43	4	PUBLIKO	47
D	175	50	PRIBATU	225
B	109	105	PRIBATU	214
A	-	25	PRIBATU	25
OROTARA	543	261	PUBLIKO+PRIBATU	804

### 2001-2002 IKASTURTERAKO HIRU URTEKO UMEEN MATRIKULAZIOAK EREDUKA

EREDUA	UME KOPURUA
D	420
B	312
A	72
OROTARA	804

### AZKEN URTEOTAKO AURREMARIKULAZIOAK IRAKASKUNTZA PUBLIKOAN

EREDUAURTEA	1999	2000	2001
D	149	192	195
B	108	102	98
A	77	39	47

OHARRA: Datuak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailak emandakoak dira. Sail horrek Mahatserria bitan banatzen du: batetik "Uribarri", bertan Tiboli, Matiko, Begoñalde, Zurbaran eta Arabella aldeko ikastetxeak sartzen dituela. Bestetik, "Txurdinaga", hor Txurdinaga, Otxarkoaga, Basarrate eta Santutxu aldeko ikastetxeak daudelarik.

## BASTERTXU



### TABERNA

Ricardo Bastida plaza



### Sugea taberna

Iturriaga, 92

Santutxu

### ZURE PUBLIZITATEA

## BERTON

94 473 54 48

## GOJIAN S.C.L.

### LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan  
Ke-irteerak eta Ur-hodiak  
Eraikinetako edozein konponketa

## ANDAMIO BARIK

### TELEFONOAK:

630 08 09 38

659 45 16 22



## SANTUTXU SPORT

Pa...Ya **JO TA KE OTXARKOAGA**  
**EUSKALDUNDU ARTE**


**OTXARKOAGA**

*Pa...Yak baditu alternatibak*

# berton


berton  
MAHATSHERRIKO ALDIZKARIA

MAHATSHERRIKO ALDIZKARIA




**Lutxo Egia**

«Hedabideek garrantzi gehiago eman diote Gabriel Aresti sariari olerki liburuari baino.»



**KARMELO ELORRIAGA,**  
MAHATSHERRIKO BASERRI  
GIRGA AKORDUAN



**Txetxu Rojo:**  
«Athletic eta herriaren arteko lotura ez da inoiz galduko.»

## hartu berton etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Berton aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena: .....

Abizenak: .....

Kalea: ..... Zenbakia: ..... Solairua: .....

Herria: ..... Herrialdea: ..... Posta Kodea: .....

Telefonoa: .....

Bankua: .....

Kontu zenbakia (20 digito): \_\_\_\_ / \_\_\_\_ / \_\_\_\_

Sinadura

2001ko uztaila - 35. zkia.

## UDALAITZ (1.092 METRO)

Elorriotik Kanpazar mendatea igo eta Arrasatera helduko gara. Herrian sartu bezain laster Aretxabaletarako bidea hartu eta berrehun metrotara, ezkerrean, enperantzako aparkalekuan utzi genuen autoa.

Oinez hasi eta Aretxabaletarantz abiatuta berehala Udala esaten zaion plaza borobilarekin egingo dugu topo. Hemen Udala auzorako errepidea hasten da, eskuinaldera hartuta. Errepidetik zein bidelaburretik joanda goialdeko eskolara eta etxe berdinez osaturiko auzora helduko gara. Zuzen jarraituta eta txakur-txakabolen ondotik igarota pinudia zeharkatu behar dugu berriro ere errepidera irte arte. Errebolta batean aurrez aurre Seroren etxea ikusiko dugu. Errepidea segituz ehun metro aurrerago, ezkerrean, "Eguzkitsu, Uribarri, auzoa" dion kartela aurkituko dugu.


Kartelaren aurrean, errepidearen bestaldean, bide bat dago. Hortik igoko dugu. Geroago pinudi batean sartuko gara eta berehala ezkerretara joko dugu bidexka batetik abiatzeko. Kontuz hemen. Bidexka honekin asmatzea oso garrantzitsua da. Lurrean ikur gorriak daude baina baliteke ez ikustea. Iku-rrak ikusi eta gero gezi zuriak ere jarraitu beharko ditugu alantzeko hesiaz inguratutako korta batera heldu arte.

Hemendik berriro ere gorantz joko dugu, pixka bat eskuinalderantz eta aurreratxoago ezkerrean beherantz egingo dugu. Zuhaitz tartean Udala (A) auzora iritsiko gara. Honainoko ibilaldiak ordubete eskatzen du.

Herrira sartzean igerilekua ikusiko dugu. Errepidetik ehun metro ibilita eskuinaldetik pista bat ateratzen da. Hortik hasiko dugu igoera. Laster bidebanatze batean urgordailuen artean igaroko gara. Aurrerago eta ezkerrean blokez eraikitako txabola bat ikusiko dugu. Apur bat aurrerago, beste bidegurutze batean ezkerrean beste etxola bat dago (B). Hemen eskuinaldetik gorantz doan bidetik joango gara eta zelaia amaitutakoan eskuineko pista hartuko dugu. Laster zuhaitz artean ibiliko gara.

Bidea oso ondo markatuta dago. Hala ere, zuhaitzitik urtetean bidexka bitan banatzen da, apur bat aurrerago berriro ere elkartu arte. Hemendik harri eta harrizta artean goaz aldapa gogorrean gora. Goialdean toki leun bat topatuko dugunean, kontuz! Bidexkak aurrera darrai baina guk ezkerrean ateratzen den xendera (C) hartu beharko dugu. Aldapa latza da, baina ikurraz ondo markatuta. Hemendik belardi batera helduko gara eta hau igaro ostean ezkerreko muino batean gurutze handi bat ikusiko dugu. Hildako mendigoizaleen oroigarria da. Pixka bat aurrerago antzinako etxe baten aztarnak daude eta igoera borobiltzeko azken aldapa harritsu eta gogorra.

Udalaitz mendiaren tontorrean txarteltutxa gurutze batean dago. Inguruan, zementozko zutabe baten gainean, Euskadiko mapa, bertatik ikusten diren mendien neurriak adierazita.



### MENDI IBILBIDE DATUETAN

Iraupena: Bi ordu eta laurden.

Tontorraren altuera: 1092 metro.

Zuhaitz motak: Pinuak, arteak, elorri zuriak eta haritzak.

Interes: Nahiko interesgarria.

Zailtasuna: Erraza.


Oharrak: Tontorrean girorik ez bada, hurbilean kobazulo bat dago. Berton babesean egon daiteke. Iturria ere badu.

### BIDEAN:

A: Udala auzoa

B: Etxola.

C: Bidea ezkerrean.



## Joxin Iturriotz: "Urolaldeko baserri guztietan bertsolariak zeuden"

Santutxuko Bertso Eskolako  
kide honek "Urolaldea  
bertsolari" liburua  
kaleratu berri du

"Urolaldea bertsolari" izenarekin kaleratu du Joxin Iturriotzek Gipuzkoako bihotzeko bailara horrek azken mendean emandako fruitu guztien hautaketa ederra. Liburu mardula da jaiotzez azpeitiar baina bizilekuz, lanbidez eta bertso jardunaz mahatsorri dugun ikerlari horrena. San Fermin egunean jendaurrean aurkeztu eta gero, egilea geugaz egon da liburuaren gainean berbetan

Liburu hau beka baten ondorioa da, ezta?

Iaz Azpeitian Kilometroak antolatu zuten eta hor, Kultur Batzordean, bertsolariekin edo zerbait egitea pentsatu zuten. Han bertsolariak oihartzun handia dauka baina sekula ez da egin haren gainean libururik. Joserra Garziari plan txiki bat egitea eskatu zioten eta Udalekin kontaktuta beka bat atera zuten. Hasierako asmoa Kilometroak egunerako ateratzea zen baina beraiek atzeratu ziren eta ni neu gero, presentatu eta gero bekarako aukeratu nindutenean, berandu ibili nintzen eta azkenean orain, uztailean, atera da. Iazko abuztuan hasi nintzen eta bederatzi hilabete eman ditut lana prestatzen. Zelan egin duzu ikerketa lana?

Bi alderdi izan dira oinarriak. Batetik liburuetan aurkitu dudana, eta hor Auspoa bilduma eta ezagutzen ditudan liburuak izan dira gehien bat iturria. Eta gero saiatu naiz bertako jendearekin inon publikatu ez diren bertsoak lortzen. Oraindik jendeak memoria dezente dauka eta nahikotxo lortu ditut. Horregatik liburuan bertso dezente agertzen da orain arte beste inon argitaratu ez direnak. Gero ere dokumentazio lan handia egin dut ere hori girotzeko: bertso gaiak, eguneko gorabeherak... Irakurleak zer topatuko du liburu barruan? Bertsolari ezagunen kasuetan aukeraketa interesatua aurkituko du. Ez dira bertso onenak agertzen, baizik eta nire errelaturako edo nik nahi nuen giro hori sortzeko

**INMOBILIARIA**  
**Gelaya**  
HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA-  
SALMENTA - ALOGERAK - ...

Iturriaga, 92  
Tfnoa: 94 473 07 78  
48004 SANTUTXU - Bilbo

**Bikoitz**  
ARROPAK ★  
ZILARRA ★  
OPARIAK ★  
Part. Arsuaga SANTUTXU  
Tel. & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO  
bikoitz@euskalnet.net / www.euskalnet.net/bikoitz

**MESÓN**  
**URETXE**  
Santutxuko poteo gunean

**Lanbroa**

**ARTESANIA**  
**LOIDI**  
Santo Rosario, 1 (Santutxu)  
Tlf.: 94 473 10 65

**ANGEL**  
HARATEGIA - URDAITEGIA  
Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

egoki ikusi ditudanak. Hor daude Jose Lizaso, Imanol Lazkano, Sebastian Lizaso ... Ezagutzen ez diren bertsolarien gainean ahalik eta informazio gehien sartzen ahalgindu naiz. Jaso dudana dena sartu dut. Izenak eta saiatu naiz guztiak sartzen, apur bat giro horren erakusgarri edo. Ia berrehun izen sartu ditut. Denen bertsoak ez dira agertzen baina askoren bertsoak topa ditut eta hor sartu ditut. Hor bertsolariak baino gehiago bertso mundua irudikatzen saiatu naiz.

**Ahozko tradizio hori ere oraindik bizi da...**

Adibidez, baserrietan ibili naiz eta orain dela berrogeita hamar urte kantatutako koplak, buruz gordeta, aurkitu ditut. Pena zen emaleak esaten zidalako: 'Asko ahaztu ditut'. Baina Urolaldean badago memorian gordetzen dutenik. Liburuko bertso eta koplak asko dira behin kanta-tu eta entzuleek buruan gordetakoak.

**Zein izan da hartu duzun ezusteko handiena?**

Bata, Basarriren bertso batzuk Bilbon aurkitu ditudala, lagun batek gordeta zeuzkan. Lagun bizkaitar bati idatzitako kartetan zeuden eta Basarrik berak publikatu gabeak dira bertso horiek. Gero Elorrioren azpeitiar batekin egon nintzen, Eusebio Lopetegirekin. Haren ilobak esan zidan: 'gure osabak badaki bere aititek kantatzen zuen bertso bat edo...'. Haren etxera joan ginen eta bat ez, mordoxka bat zekien. Berak zioenez, gauza zen egun osoa kantatzen pasatzeko bertso bat errepikatu gabe.

**Ze pisu dauka Urolaldeak bertso gintzan?**

Urolaldeak izen handiak eman ditu. Azkoitian mende hasieran bertso jartzaile pilo bat zegoen eta hor material ikaragarria dago. Gero gerra ondorengo figura handien biak hangoak dira, Basarri eta Uztapide. Eta gero Joxe Lizaso, Oranda, Imanol Lazkano, Sebastian Lizaso, Euzkitze, ... asko aportatu dutenak dira eta eskualdeak horrela pisu berezia hartzen du. Baina liburuaren asmoa, izen horiek agertzea baino, dagoen ugaritasun hori azaltzea izan da. Zentzu horretan, Urolaldean esan daiteke baserri guztietan zegoela bertsolari bat edo sasi-bertsolari bat edo oso-oso bertsozalea zen bat edo behintzat inoiz bertso-tan egin duena. Eta ez da kasualitatea, nire ustez, eskualde euskaldunenetakoa izatea.

**Liburua Urolaldeko jendearentzat idatzita dago ala oro har bertsozaleentzat?**

Idazterakoan nik bertsozale eta euskaltzaleengan pentsatzen nuen, nahiz eta materiala Urolaldekoa bakarrik izan. Aurkituko du bertso munduaren gaineko gaur eguneko liburuak, bertsoak sarritan gaur egunekoak ez badira ere. Nire asmoa izan da gustura irakurtzen den liburuak ematea eta, gainera, erreferentzia ematea bakoitzari bere balaran arlo horretan zer egon daitekeen bere buruan behintzat azterketa egiteko. Seguru nago hemen, Mahatserrian, badagoela zer egin. Begoñak ere bertsolariak eman ditu, Betolatza esate baterako.

**Biktimganako** **Servicio de**  
**Laguntza** **Asistencia**  
**Zerbitzua** **a la Víctima**

**Zeurekin gaude**

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE  
SEGURANTZA SAILA  
Gize Eskubideen eta Justiziarikiko  
Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Dirección de Derechos Humanos  
y Cooperación con la Justicia

## horoskopoa



**Aries:** martxoaren 21etik apirilaren 20ra.  
Bikini hori lar labur gelditzen jatzu. Ez dakit konturau zaran baina hondartzako sentzazinoa zara, neska!



**Taurus:** apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.  
Zeu kontrakoa sinistuta bazagoz be, futboleant txarra zara lagun, txar-txarra. Urteak emon dozuz hor eta oraindino inork ez deutsu esan. Geuk esango dogu: Hobe dozu lagatzea, lagun!



**Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.  
Bihotzeko poxpolinak ez deutsula kasurik egiten!!! Eh, baina kasu egiteko lehenengo ikusi behar zaitu. Eta zu beti ezkutatu ohi zara...



**Cancer:** ekainaren 21etik uztailearen 20ra.  
Azken orduan oporrak pikutara joan dira. Ez dau ardura. Esan astun horri aurrerago hartuko dozuezala.



**Leo:** uztailearen 21etik abuztuaren 23ra.  
Denboraldia oraindino ez da hasi eta leioiek lehenengo harrikadea jo deutsue bekokiaren erdian. Espabila zaitetz, lagun, disgusturik ibiliko zara bestela!



**Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra.  
Ligateko orduan ez esan 'orain ala inoiz ez', errazago dalako bigarrena lehenengoa baino. Eutsi egiok pazientzia behin bez galdu barik.



**Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra.  
Gazte, nora hoa total gorrituta? Heuk beti kremie umekeria dala ta amatxuri kasurik bez. Beittu gero zelako itxuriaz hatoren...



**Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra.  
Neskak heugaz ligetako desiretan ei dagoz. Holanik izango dok baina geuk beti ikusten doguz heugandik igesi.



**Sagittarius:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra.  
Irailan lan polit baterako deituko zaitue. Eta aurtengo irailan ez bada, hurrengo urtekoan, edo agian 2003ko martxoan, edo... baina deituko zaitue, seguru.



**Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.  
Etxean baino hobeto inon bez. Bai, egia da. Baina kanpora be atara zeinkez, domeka eguerdian etxe ondoko parkera sikan.



**Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.  
Makailuzaleak kaleetan jaun eta jaube dabilzan garai latz hauetan jantzi zeure rokeru zamarra baltza eta jagi kalera txosna eta tabernetan rokanrola eskatzeko. Ea kasurik egiten deutsuen.



**Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra.  
Loteria tokau ostean Tahitiko hondartzara zoragarri batean egongo zara BERTON irakurtzen. Holan espero dogu ze hainbat kilo hartu eta gero pezetarik gastau barik bazabiltza...

## agenda

## ABUZTUAREN 4

JUSTUEGUNE TETUANE LANDAN.

## ABUZTUAREN 10TIK 12RA.

ALGORTAKO PORTU  
ZAHARREKO JAIK.

## ABUZTUAREN 14-18

GERNIKAKO JAIK.

## ABUZTUAREN 15.

ERROMERIA BEGOÑAKO  
BASILIKAN AMA BIRJIÑAREN  
OMENEZ.

## ABUZTUAREN 18-25

BILBOKO ASTE NAGUSIA

## ABUZTUAREN 20TIK AUERRERA

ARRIAGA ANTZOKIA: "HISTORIA DE  
UN CABALLO". MUSIKALA.

## ABUZTUAREN 18TIK 20RA

EUSKALDUNA JAUREGIA:  
"LA REVOLTOSA" ETA  
"LA VERBENA DE LA PALOMA"  
ZARZUELA.

## IRAILAREN 1ETIK 8RA

LEKEITIOKO JAIK.

## IRAILAREN 7TIK 16RA

BERMEOKO JAIK.

## IRAILAREN 16

EGUZKILOREA MENDI TALDEAREN  
IRTEERA: JOAR MENDIRA  
ARABAKO KANPEZUTIK

## ABUZTUA ETA IRAILA OSOAN

GAUERO HAMAR ETA ERDIETAN  
LABURMETRAIA BEGOÑAKO  
ERREPUBLIKARI BURUZ.  
PLAZA BARRIAN.  
BILBOKO ZAZPIGARREN  
MENDEURREN OSPAKIZUNEN  
BARRUAN.

## ASTE NAGUSIA 2001

**Larunbata 18:** 14etan Konpartsaren argazkia. 15etan Bazkaria Txoznan 18etan Txupinazoa Arriagan.

**Igandea 19:** 12'30etan Poteoa Fanfarreagaz. 15etan Bazkaria Txoznan. 21etan Txitxiburduntzi.

**Astelehena 20:** 14etan Itsasadarreko jaitsiera Txalupan. 15etan Bazkaria Olabeagan. 17etan Itsasadarreko igoera Txalupan.

**Asteartea 21:** 15etan Bazkaria Txoznan. 21etan Txitxiburduntzi.

**Asteazkena 22:** 12'30etan Poteoa Fanfarreagaz. 15etan Herri Bazkaria. 19etatik aurrera Herrien Jaia.

**Osteguna 23:** 15etan Bazkaria Txoznan. 18 etatik aurrera Ikurrina Omenaldia

**Ostirala 24:** 12'30etan Poteoa Fanfarreagaz, 15etan Bazkaria Txoznan.

**Larunbata 25:** 11'30etan Mari Jaia Otxarkoagan. 15etan Konpartsen arteko bazkaria Arenalean. 17'30etan Herri Jokoak Arriagan.

**Igandea 26:** 15etan Herri Bazkaria. 17etan Urde Zikinen Gatazka Pa...Ya VS Kaskamoñas. 18etan Mari Jaiarekin azken kalejira. 21etan Azken jaia, jan, edan eta gozatu



Pa...Yak baditu  
alternatibak!

